

## **EGK-k 30 urte baino gehiago darama lanean gazteen artean bizikidetza eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bake-kultura sustatzeko**

Donostian, 2018ko martxoaren 7an. Azken adierazpenen aurrean, EGK-ko Batzorde Iraunkorrak “gazteen artean bizikidetza eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bake-kultura sustatzeko 30 urte baino gehiago lanean” daramala gogorarazi du. Lantaldean Euskadin izandako indarkeria, ezberdintasun, bizikidetza eta giza eskubideen urraketekin lotura duten hainbat gai landu dira. EGK-k bere diskurtsoa bake-lantaldean egiten den lanetik abiatuta eraikitzen du, beti “errespetu eta tolerantziatik”. “Gure diskurtsoa gazteek proposatu eta lantzen dituzten gaien erreflexua da”, adierazi dute.

Era berean, Batzorde Iraunkorrak oroitu du “orain arte ez dela presoen harreraren gaia landu” eta horregatik ez dagoela horren gaineko “posizionamendurik organo kolegiatu bezala, alde batera utzita kide den elkarte bakoitzak erakunde independente bezala izan dezakeen iritzia”.

Horretaz gain, organo gorenak “diskurtsoa eratu nahi duten pertsona gazte guztiak” Bake- eta Bizikidetza-lantaldean parte hartzera gonbidatu ditu, “bake eta bizikidetzarekin harremana duten euskal gazteriarentzat interesekoak diren ardura, kezka edo ideiak biltzeko aztertzeko eta forma emateko espazioan.” Beti kontuan izanda EGK pluraltasun askoko ideiei ahotsa ematen dien plataforma dela, eta, hori dela-eta, espazioen helburua adostasunetara heltzea baino, puntu komunak bilatzea dela ondoren hauetatik bizikidetza eta giza eskubideen aldeko diskurtsoa eratzeko.

Azkenik, Batzorde Iraunkorrak organo gorena uzteko erabakia sentitzen du, nahiz eta errespetatzen duen. “Egoera bideratuko dela espero dugu”.